

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak euskalduna ez den zonaldeko D ereduaren eskaera guztiari erantzuten dio, ikasleen % 5i

Euskalduna ez den zonaldean ikasturte honetan hezkuntza-sisteman sartutako 1.524 ikasleetatik, 82k bakarrik egin zuten ikastoletan

Miércoles, 22 de octubre de 2014

Nafarroako Gobernuak PSN, I-E eta Geroa Bai-k sustatutako araudi-proposamena aztertu du gaur goizeko bilkuran. Haren bidez, D eredu (euskaraz bakarrik ematen den irakaskuntza) eskaini nahi da Foru Komunitatean euskalduna ez den zonaldeko udalerrietako titulartasun publikoko ikastetxeetan. Proposamena aztertu ondoren, Gobernuak ondorioztatu du, "proposatutako araudi-aldaketak ez duela zentzurik, urtean matrikulen % 5 inguruan dagoen eskaera batez ari baikara eta inguru zonalde horretan dauden sei ikastolek behar besteko erantzuna ematen dietela (Lodosa, Irunberri, Zangoza, Tafalla, Tuteran eta Viana), eta ikastola horiei Foru Gobernuak laguntza ematen dietela itun bidez".

Gobernua ondorio horretara heldu da euskalduna ez den zonaldeko matrikula-zifrak aztertu ondoren, Hezkuntza Departamentuak emandako zifrak. Hezkuntza-mailen arabera, Haur eta Lehen Hezkuntzan matrikulatutakoen % 4,27k ikasten dute D eredu (udalerririk horietako 18.180 ikasleetatik, 776 haur) eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako % 3,71k (7.139tik 229 ikasle). Gainera, gune geografiko horietako hezkuntza-sisteman sartu diren 3 urteko 1.524 ikasleetatik, 82 bakarrik matrikulatu ziren ikastoletan: 32 Tafallan, 18 Irunberrin, 15 Zangozan, 10 Tuteran eta 7 Vianan.

Nafarroako Gobernuak zehaztasuna eskatu die, euskalduna ez den zonaldean D ereduaren eskaintza derrigorrezkoa izateko legea aldatzea proposatzen duten talde politikoei; Gobernuaren aburuz, araudi-aldaketa hori justifikatzen duen behar sozialik ez dago, eta lege-aldaketa bat soilik justifikatzen da, hain zuzen, errealitate sozial hori aldatu nahi denean.

Zifra horiek agerian uzten dute, gainera, Gobernuak gaur egindako azterketarekin bat etorritik, "udalerririk horietan dauden itunpeko ikastolen bideragarritasuna arriskuan izan daitekeela ikastetxe publikoek beren D ereduaren eskaintza propioa egiten badute hezkuntza euskara hutsean eskaintzea eskatzen dutenak hain gutxi diren zonalde batean".

Foru Gobernuak kalitatezko hezkuntza baten aldeko apustua adierazi du, beste behin; kalitatezko hezkuntza horrek ikasleak balioetan heziko ditu, gaitasunetan eta baita beren hizkuntz gaitasunean ere, Komunitatekoak diren hizkuntzetan, familiak adierazitako nahiak errespetatuz, nahiz Europako Erkidegokoetan ere, lan-merkatuetarako ateak ireki ahalko dizkienak. "Horixe da herritarren eskaera, eta horretan

ari da lanean buru-belarri Hezkuntza Departamentua", erantsi du. Nafarroako Gobernuak azterketa hedabideei gaur egindako asteroko ohiko bilkura amaitu ondoren helarazi die.